



BARNE EBAZPENA: 2019ko abuztuaren 30ekoa, Hezkuntza sailburuordearena; ikastetxe publikoetako giroa euskalduntzeko 2019-2020 ikasturterako dotazio-deialdia zabaltzen duena.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilpena Arauzkotezkoak, honela dio bere 17. artikuluan: «Jaurlearitzak, ikasleei nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzaren emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzabideetan eta arduralaritzako ihardun eta agirietan euskara agizko adierazpide eginez». Ildo beretik, Hezkuntza eta Kultura Sailaren 1983ko abuztuaren 1eko Aginduak (1983ko abuztuaren 19koa, 122. zk. duen EHAAn argitaratua), Euskal Autonomi Erkidegoko irakasmaila ez unibertsitarioetan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua garatzen duenak, bere 12. artikuluan, zera dio: «Hezkuntza eta Kultura Sailak beharrezko neurriak hartuko ditu euskararen erabilera eskola-giroan bermatzeko, klase barruan nahiz klasez kanpoko ekintzetan ohiko adierazpide bihurtuz».

Honen haritik, NOLEGA izeneko ekimen sorta moldatu zuen Hezkuntza Sailak 1984tik aurrera. Atal horrek, urte guzti hauetan eta gaur egun arte, etenik gabe hainbat ekimen bideratu, antolatu edota diruz lagundu du. Ahozko erabilera areagotzeari begira, deialdi sorta zabala eskaini izan du urtero. 2013-14 ikasturtetik aurrera, ikastetxe gisa arlo honi modu bateratuan erantzungo dion ekimena proposatu zuen. Horregatik, Nolega Deialdi Bateratuan lehengo ildo berezituak bildu dira: Ahozko Adierazpena (eskola antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, kontalaritza eta irratigintza); Ikasgelaz kanpoko Ekintzak (IKE); Euskal Girotze Egonaldiak (EGE); eta Ikastetxeen arteko binakako loturak (Ikabil).

Ikasleek hizkuntza arloko gaitasun guztiak eskuratzea da hezkuntza sistema honek duen egiteko nagusienetako bat, eta horrela jasotzen du *HEZIBERRI 2020* planaren marko berriak. Marko hori garatzen duen 237/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak, honela dio, besteak beste, bere 9. artikuluan: «Haurrak entzuteko, adierazteko eta hitz egiteko gaitasuna garatu behar du». Horrez gain, 236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, honela dio bere 10. artikuluan, elebitasuna eta eleaniztasunaren gainean zera adierazten duenean: «bi hizkuntza ofizialen erabileran oreka eta berdintasuna bilatzea da hezkuntza-sistemaren xedeetako bat (...), euskara hezkuntza-komunitatearen jardueran guztietan adierazpide normala izan dadin bultzatu eta bermatu behar du hezkuntza-eskumenak dituen sailak».

Horretarako, ez da nahikoa ohiko klase emankizunetan lantzen diren gaitasunak jorratzea. Gelako metodologia erabat paradigma komunikatiboetan kokatzeaz gain, eskola esparruko beste hainbat ekimen osagarri ere eskaini beharko dizkio ikasleari. Batez ere, ikasleengan hizkuntza-gaitasuna eta bat-bateko jarioakortasuna bermatu nahi da. Horretarako, eskola-giroan hizkuntza lantzeko saiakera biziak eta naturalak egiten dira; saiakerok babestea eta sustatzea du helburu deialdi honek, ikaslearen bizipenetan, adierazpenetan eta irudikapenetan euskara txertatuz.

Beraz, orain artekoari jarraituz, bidera daitezkeen gainerako ekintzei kalterik egin gabe eta beste aurrerapauso bat emanez, 2019-2020 deialdia egitea erabaki da.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea, 2019-2020 ikasturtean, eskolaren eremuan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz diru-dotazio deialdia eta oinarri-arauak argitara ematea da.

2. artikulua.– Zein ekintza lagunduko diren eta zeintzuk diren baldintzak.

Laguntza deialdi honen bidez, ikasgela barruan zein kanpoan burutzekoak diren ondoko jarduera hauek lagunduko dira diruz:

a) Ahozko Adierazpena. Ikastetxeetan hizkuntzaren ahozko erabilera egoera ez formaletan bultzatzea, eskola-giroa euskalduntzeko asmoz egiten diren saio-jardueren bitartez: eskola antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, irratigintza, kontalaritza eta ikasleen ahozko adierazpena hobetzeko asmoz eskolara gonbidatuak ekartzea. Ezinbestekoa izango da antolatutako jardueren arduraduna ikastetxea bera izatea eta, horren izenean, ikastetxeko zuzendaria.

b) IKE (Ikasgelaz Kanpoko Ekintzak). Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, ikasgelatik kanpo eginiko jarduerak:

b.1. Ikastetxearen barruan, arlo akademikotik kanpo, euskaraz bizitzeko helburuarekin prestatutako jarduerak (jarduera bere osotasunean lagunduko da diruz: lanketa fasea, emanaldia, atrezzo, bibliografia, jantziak..)

b.2. Guraso, langile ez-irakasle edota irakasleentzat antolatutako berariazko jarduerak, beti ere horien helburua ikasleen erabilera areagotzea denean.

Ikastetxean euskararen erabilera sustatzeko egiten diren jarduerak modu zabalean hartuko dira kontuan atal honetan, alegia, ikastetxearen antolamenduarekin zein pertsonen dinamizazio-motibazioarekin zerikusia dutenak, eta dagokion ikastetxeko planean kontuan hartuta daudenak.

Atal honen barruan ez dira sartuko, bestalde, berariazko laguntza bidea duten irakasleen prestakuntza edo berrikuntza-jarduerak: IRALE, PREST GARA...

b.3. Erabilera areagotzeari lotutako eskola antolamenduzko jarduerak: hizkuntza paisaia, liburutegia, idatzizko arauak ...

Ekimen hauen helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea eta ahozkotasuna lantzea dela kontuan hartuta, ez dira diruz lagunduko arte-lanketarako, gorputz-espresiorako, ikus-entzunezko efektuetarako eta abarretarako gastuak; ezta horrelako beste edozer hobetzeko erabiliko lirakekeen gastuak ere.

c) EGE (Euskal Girotze Egonaldiak). Euskal giro batean bizipena eskaintzeko asmoz antolatutako egonaldiak. Gutxienez 2 gaueko iraupena izan behar dute diruz lagunduak izateko.

Sailak kudeatzen dituen Euskal Girotze Barnetegietan egiten diren egonaldiak berriaz lagunduak direnez, ez dira kontuan hartuko deialdi honetan.

d) IKABIL (Ikastetxeen arteko binakako loturak). Euskal kultura, hizkuntza zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzea helburu duten ikastetxeen arteko truke-irteerak.

Kultura molde, euskal hizkera zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzeko egiten diren ikastetxe-trukeak izango dira lagunduak. Truke orok 2 gaueko iraupena izan behar du gutxienez. Normalean bi egonaldi izango dira, truke-kide bakoitzaren lekuan bana, alegia. Halere, salbuespen bezala, egonaldi bakarra egin ahal izango da, adostutako aterpe batean edo ikastetxe bakar baten herrian, bi ikastetxeen arteko distantziagatik edo beste arrazoiren bat dela medio.

Trukea EAEko ikastetxeen artekoa denean, ikastetxe biek bete behar dute eskabidea. Trukea Nafarroako edo Iparraldeko ikastetxe batekin egin nahi bada, berriz, EAEkoak soilik egingo du eskabidea, eta diru-laguntza osoaren jasotzailea ere bera izango da.

3. artikulua.– Jarduerak burutzeko epea.

Laguntza-deialdi honek 2019-2020 ikasturtean burutuko diren egitasmoak baino ez ditu kontuan hartuko. Deialdi honen bidez diruz lagundutako egitasmoak justifikatzeko azken eguna 2020ko ekainaren 15a izango da; hori dela-eta, egitasmo horiek data hori baino lehen eskaini, eman, aurkeztu edota gauzatuko dira.

4. artikulua.– Diru-baliabideak.

Dotazio-deialdi honetarako erabiliko den diru-kopurua 400.544,00 eurokoa da.

5. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Agindu honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako eman ditzaketenekin. Hala ere, diru-laguntzaren kopuruak ez du inola ere, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko. Kasu horretan, deialdi honen bidez emandako kopurua dagokion zenbatekora murriztuko da.

2. Deialdi honetara aurkezten diren ikastetxeek, laguntzagai diren jarduerak egiteko beste erakunde publiko edo pribatutatik laguntzarik eskatuta badute, edota halakorik jasoak badira, horren azalpena egin beharko dute, berriaz, eskabide-orrian, dagokion atalean.

6. artikulua.– Onuradunak

Deialdi hau Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoei zuzenduta dago, hain zuzen ere ondoko mailak eskaintzen dituztenei: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Horiez gain, deialdi honetan parte hartzeko aukera izango dute, maila horietan aritu ez arren, Ulibarri programan dauden ikastetxe publikoek.

7. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 artikuluan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte deialdi honetako laguntzak eskuratu nahi dituztenek, besteak beste, honako hauek:

a) Diru-laguntzak oinarri duen helburua lortzea, eta horretarako eskabidean zehaztutako helburuak burutzea.

b) Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta diru-laguntza deialdiak dituen jarduerak bete direla eta helburuak lortu direla ziurtatzea.

c) Egin daitezkeen egiaztatze eta kontrol finantzarioei men egitea, horretarako beharrezko informazio guztia aurkeztuz. Deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzaren inguruan Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Euskal Herriko Kontu Epaitegiak bere egitekoak betez eska dezan edozein informazio eskaintzera behartuta dago laguntza-jasotzailea.

d) Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, deialdiaren bidez esleitutako diru-laguntza eskuratu aurretik.

e) Jasotako diru-laguntza hartu dela egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jarduerak aurrera eramanez izateko.

f) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan ezarritako betetzea, alegia, diru-laguntzaren bidez burutzen diren ekimenen iragarki eta publizitatean ekimenak diruz lagunduak direla aipatzea.

g) Jasotako diru-laguntza itzultzea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan aipatzen dituen kasuetan.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistatik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

3. Ikasleen aniztasuna aitortzea eta errespetatzea, eta gaitasun diferentia duten ikasleen beharretara egokitzeko aukerak ematea, askotariko errealitateak kontuan hartuta, deialdi honen sarreran aipaturiko 236/2015 eta 237/2015 dekretuek arautzen dutenez.

4. Jasotako diru-laguntza zurrizko unean Eusko Jaurlaritzak bere gune elektronikoan duen ikasturte bukaerako azalpen-memoria betetzea. Bertan ikastetxeak ekintzen berri emango du, ekimen arduradunen izen-abizenak zehaztuko ditu, eta diru-justifikazio orria izeneko dokumentua ere bete beharko du.

8. artikulua.– Eskabidea eta formularioak aurkezteko prozedura.

1. Eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, "Herri-ikastetxeak – Deialdiak" atalean, honako helbide elektronikoan:
<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nolega-2019>

Eskabidea egiteko azalpenak, eskabide-orriak eta gainerako agiriak ere helbide horretan egongo dira eskuragai.

2. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek **2019ko abuztuaren 31tik irailaren 30era** bitartean (biak barne) aurkeztuko dituzte eskabideak, horretarako bereziki prestatutako eskabide normalizatuetan bakarrik. Epe hori hasi aurretik edo bukatu eta gero ezin izango da eskabiderik aurkeztu.



3. Ikastetxe bakoitzak eskabide-orri bakar bat aurkeztu ahal izango du deialdi honetara. Eskabide-orri bat baino gehiago aurkezten badira, beti ere erregistratuta izan den azken eskabide-orria izango da balioztatua.

4. Administrazioan jasotako eskabidean hutsune edo osatu beharren bat sumatzen bada, honen berri emango zaio eskatzaileari, eta 10 eguneko epea emango zaio, ondo osa dezan. Epe horretan eskabidea osatzen ez badu, ikastetxeak bere eskabideari uko egin diola ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Eskabidea egin ondoreneko izapideak helbide honetan egin beharko dira: <https://educacion.hezkuntza.net/group/nire-eskabideak>

6. Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak onartu direla adierazten du.

9. artikulua.– Deialdiaren organo kudeatzailea.

Deialdi honen kudeaketa Hezkuntza Sailaren, Hezkuntza Sailburuordetzaren, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari dagokio.

10. artikulua.– Diru-dotazioak esleitzeko prozedura.

1. Deialdiko baldintzak betetzen dituzten ikastetxe guztiei esleituko zaie diru-laguntza.

2. Gehienez 3.000 euroko laguntza esleituko da ikastetxeko.

3. Eskabideak aztertu eta ondorengo irizpideak kontuan hartuta, laguntza-proposamenak egiteko ikastetxe bakoitzari puntuazio bat esleituko zaio. Deialdiak duen diru-baliabidea puntuazio horien arabera banatuko da.

PUNTUAZIOAREN OSAKETA:											
<p>Oinarrizko Puntuazioa</p> <p>OP1 – Ahozko Adierazpena</p> <p>Ahozkoa lantzeko ikastetxe barruko jarduerak horrela baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eginiko ekimenak (Antzerkigintza, Bertso-lanketa, Kantagintza, Irratigintza, Kontalaritza, gonbidatuak): 5 puntu ekitaldi bakoitzeko, eta 30 puntu gehienez. • Parte hartzen duten gelen kopurua: puntu bat gela bakoitzeko, gehienez 30 puntu. • Parte hartzen duten ikasleen kopurua: puntu bat 10 ikasleko (gutxiago badira proportzioan dagokiona), eta gehienez 30 puntu. • Saioaren jendeartekotzea. <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse; margin-top: 10px;"> <thead> <tr> <th style="width: 70%;">Saioaren jendeartekotzea:</th> <th style="width: 30%;">Puntuazioa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Ikastetxeko ikasleen aurrean</td> <td style="text-align: center;">2,5</td> </tr> <tr> <td>Ikastetxeko ikasleen eta gurasoen aurrean</td> <td style="text-align: center;">5,0</td> </tr> <tr> <td>Ikastetxeko ikasleen, gurasoen eta herritarren aurrean</td> <td style="text-align: center;">7,5</td> </tr> <tr> <td>Ikastetxeko ikasleen, gurasoen, herritarren eta beste ikastetxeen aurrean</td> <td style="text-align: center;">10</td> </tr> </tbody> </table>	Saioaren jendeartekotzea:	Puntuazioa	Ikastetxeko ikasleen aurrean	2,5	Ikastetxeko ikasleen eta gurasoen aurrean	5,0	Ikastetxeko ikasleen, gurasoen eta herritarren aurrean	7,5	Ikastetxeko ikasleen, gurasoen, herritarren eta beste ikastetxeen aurrean	10	<p>Puntuazio osoaren %31 balio izango du, eta gehienez 100 puntu</p>
Saioaren jendeartekotzea:	Puntuazioa										
Ikastetxeko ikasleen aurrean	2,5										
Ikastetxeko ikasleen eta gurasoen aurrean	5,0										
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen eta herritarren aurrean	7,5										
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen, herritarren eta beste ikastetxeen aurrean	10										
<p>OP2 – IKE</p> <p>Ikasgelaz kanpo antolatutako ekintzak baloratzeko, kontuan hartuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekimenaren eremua (gehienez 70 puntu): <ul style="list-style-type: none"> ◦ Gela, patioa, jangela, pasilloa, liburutegia, autobusak eta bestelakoak: 10 puntu bakoitzeko. • Parte hartzen duten ikasleen kopurua: puntu bat 10 ikasleko (gutxiago badira, proportzioan dagokiona), eta gehienez 30 puntu. 	<p>Puntuazio osoaren %23 balio izango du, eta gehienez 100 puntu</p>										
<p>OP3 – EGE</p> <p>Euskararen erabilera sustatzeko eskolaz kanpoko egonaldiak baloratzeko, kontuan hartuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Antolatzeagatik: 20 puntu. • Gau kopuru osoa ikastetxetik kanpo (ikasleak x gauak): 0,267 puntu gauako, 80 puntu gehienez. 	<p>Puntuazio osoaren %23 balio izango du, eta gehienez 100 puntu</p>										
<p>OP4 – IKABIL</p> <p>Inguruko beste euskal giro edo euskalki desberdineko ikastetxeetako ikasle eta familiekiko harremanak lortu eta sendotzeko trukeak egiten badira, kontuan hartuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Antolatzeagatik: 20 puntu. • Gau kopuru osoa ikastetxetik kanpo (ikasleak x gauak): 0,15 puntu gau bakoitzeko, 45 puntu gehienez. • Trukekideak Nafarroakoak edo Iparraldekoak badira: 35 puntu. 	<p>Puntuazio osoaren %23 balio izango du, eta gehienez 100 puntu</p>										
<p>GRADUATZAILEA</p> <p>GR1 – Ulibarri programa –</p> <p>Hizkuntz Normalkuntzako planaren barruan (Ulibarri programa) egoteagatik, jasotako puntuazio osoaren %10 gehituko zaio.</p>											



11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Eskabideak aztertu eta aurreko artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuta laguntza-proposamenak egiteko, honako kide hauez osaturiko batzordea izendatuko du Hezkuntza sailburuordeak:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo, bere ordez, Euskara zerbitziburua: mahaiburu izango da.
- Berritzeguneetako hizkuntza-normalkuntzako hiru teknikari.
- Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzuko teknikari bat, idazkari.

12. artikulua.– Ebazpena.

1. Batzordeak deialdiaren ebazpen-proposamena eta batzordearen akta helaraziko dizkio Hezkuntza sailburuordeari, eta honek dagokion Ebazpena hartuko du eta, gehienez, sei hilabeteko epean jakinaraziko du, deialdi hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2. Ebazpena “Herri-ikastetxeak – Deialdiak” atalean argitaratuko da, honako helbide elektronikoan: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nolega-2019>

3. Aipaturiko epean ebazpenik ematen ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da. Aginpidedun organoak eskatutako diru-laguntzari buruzko berariazko ebazpena emateko betebeharra du.

4. Ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkez daiteke Hezkuntza sailburuordearen aurrean, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

13. artikulua.– Diru-dotazioaren ordainketa.

1. Aurretiazko izaera duen ordainketa bakarrean gauzatuko da ordainketa eta Ebazpena argitaratu ondoren jarriko da tramitean. Ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik hasi eta hamar (10) eguneko epean ikastetxe onuradunek diru-laguntzari espresuki uko ez badiote egiten, diru-laguntza onartutzat joko da.

2. Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere diru-laguntzaren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman badu, diru-laguntzak emateko ebazpena alda daiteke. Horretarako, beharrezkoa den likidazio-ebazpena emango du Hezkuntza sailburuordeak.

14. artikulua.– Diru-dotazioaren justifikazioa.

1. Diru-dotazioa jasotzen duten ikastetxeek, laguntza jasotzen dutenetik **2020ko ekainaren 15era bitartean** (azken egun hori barne) egin beharko dute burututako jardueraren justifikazioa, ondoko helbidean:
<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nolega-2019>

Bertan, urtean zehar ikastetxeetan euskararen erabilera bultzatzeko ekintzen balorazio eta emaitzen galdeketa-memoriak eta justifikazioak aurkituko dituzte betegarri. Data hauek hasi aurretik edo bukatu eta gero ezin izango da justifikaziorik bete.



2. Jasotako diru-laguntzaren justifikazioa garaiz eta zuzen amaitzen ez duenak, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharko dizkio jasotako diru-kopuruak eta legez dagozkien interesak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak arautzen duden bezala, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (1992-02-07ko EHAA) zehaztutako prozeduraren arabera.

15. artikulua.– Betebeharretan hutsegitea.

1. Ikastetxeren batek laguntza jaso eta ekimena aurrera eraman ez, edota baldintzaren bat bete gabe uzten badu, diru-laguntza itzuli egin beharko du Eusko Jaurlaritzako Diruzaintza Nagusira, azaroaren 38/2003 Legearen 37. artikulua eta 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina arautzen duen bezala, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (1992-02-07ko EHAA) zehaztutako prozeduraren arabera.

2. Modu berean jokatu da diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. Artikuluan jasotzen den baldintzaren bat betetzen ez bada.

16. artikulua.– Datu Pertsonalen Babesa.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoa betez, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, «NOLEGA» deritzon fitxategian jasoko dira. Fitxategi hori 2010eko urriaren 4ko Aginduak (EHAA, 2010/10/05), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, arautzen du, eta bere helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea da batetik, eta deialdi honetara aurkezten diren pertsonak deialdiaren garapenari buruz informatzea bestetik. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita ditu. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da. Sarbide-, zuzenketa-, ezabatze- eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 30a.



HEZKUNTZA SAIA

Hezkuntza sailburuordea DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
MIREN MAITE ALONSO ARANA